

TRANTSIZIOAN BIDALI BEHAR NITINANAK

Iñaki Gurrutxaga

Orio, 17 urte

(ez dut ezagutu baina amestu izan dut
bere existentziarena konbinazio arraroegia zelako
gaita batean izkutatu zen lagun hura
ez dut ezagutu baina oraindik itxaroten dut
orriak gastatuz eta gastatuz)

zentsurak fusilatu egin nahi hau
eta nire postontzian bilera klandestino bat egin
nahi dun nigaz
hasiera trinkoegia izan zaitekeenan hau
monarkia baten sintonian
ribeiro zuriz bustitako gutunarentzat
militantzia arriskutsuegia hirea jolas biluzien fren-
tean
agian bai ziurrenik
odolak ez din barkatzen
eta eztarritik ez zaidan elkarrizketa konplexurik
igaro azkenaldian
lasai nagon
no falo gallego
pero podemos beixarnos en noso propio dialecto
gaur bederen

arrazoia
eremu tribial baten simetria baino ez haiz
gehiegi pentsatua ahazturan kokatzeko

eta hire ausentzia bonbila batean gatibatu dinat
oraindik ondo egosi gabeko errealitatearen
korronteari begira
sugestiboegia baitun hire oroitzapena
amaigabeko zurubietan gora joateko
babel estrainio baten bila

bazekinat
predestinazio bat baino ez omen dun hire desa-
gerketa
eta interruptoreak
su artifizialak moldatzen ditin hire gomutaren neu-
rrira
eta gerezi begi
adreiluz seilatuko ninake hire hitz bakoitza musu
bakoitza
eskutiz hau nora bidali baneki
hiri bat eraikitzeraino
hau ere bion artean konbultsionatu
eta postaz bidaiatzeko
ziutate minimalista eta nomadak
presente distantziaztaile honen azken erromatiko-
ak ditunala sinetsita

egin nahi hau fusilatu zentsurak
baina gau eroriko dun
ahaztuko haute
eta hire farolpeko errainu bakoitzak zentzuratuko
ditin fusilak.